

Elurrezko pilotak

Antton Kazabon- Aitziber Alonso



1-Non eta norekin bizi zen Goiara?

- ☐ Bere aita ikazkinarekin, Mendi Handiaren beste aldean.
- ☒ Bere aitonaarekin, borda zaharrean.

2-Nola bazekiten aita heldu zela?

- ☒ Aitak elurrezko pilotak aurtikitzen zituen atearen kontra.
- ☐ Ikatz puskak botatzen zituen atearen kontra.

3-Zer oparitzen zion aitak?

- ☐ Ikatza, besterik ez, ez baitzen zintzoa izan Aitonaarekin.
- ☐ Artilezko galtzerdiak, abarkak eta txapela.
- ☒ Lepoko zapi koloretsua, egurrezko jostailuak...

4-Non zegoen Goiararen ama?

- ☐ Mendi Handiaren beste aldean, aitarekin bizi zen.
- ☒ Eguzki Jainkoaren etxean, hodei zuri bat bilakatu zen.
- ☒ Maluruski Ama hil zen Goiara sortzean.

5-Zein zen Goiararen gaueroko ametsa?

- ☒ Mendi tontorrera joaten zela eta han, amaren matelak ferekatzen zituela.
- ☐ Ama heldu zitzaiola etxera bisitatzera.

6-Orduan neska ttipia goizero abiatzen zen amaren xerka:

- ☐ Aitona ados zen, Goiara gaua jin baino lehen itzultzen baitzen.
- ☒ Baina biziki urrun zen, eta azken aldian, gauak neska harrapatu zuen eta hotzak hil zuen.

7-"Amak altzoan hartu zuen eta besarkada luze batean lotu ziren betirako." Zer erran nahi du?

- ☒ Goiara hotzez hil zela eta amarekin zela betiko.
- ☐ Goiara ametsetan zebilela bere ohean.

8-Aita itzuli zelarik bistatzera:

- ☐ Eguberri guziez bezala zoriontsu ospatu zuten hiruek.
- ☒ Elurrezko pilotak bota zituen atearen kontra baina atea ez zen berehala ireki.
- ☒ Aitona zaharrak hitzik erran gabe, dena erran zion begiekin.

9- Aita gaizoa biziki triste zen:

- ☒ Mendi Handiak emaztea eta alaba gabe utzi zuelako.
- ☐ Aitona ere Mendi Handian hil zen.
- ☒ Aitona penarekin eritu zen eta hil.

10- Ikazkinak emaztea, alaba eta aita bihotzean ditu betiko:

- ☐ Hala ere, bere borda zaharrera itzuli zen eta urtero itzultzen Eguberriz.
- ☒ Hala ere, bere zaku handia opariz bete zuen eta herrixka zuri-zurira abiatu.
- ☒ Elurrezko pilotak botatzen zituen ateen kontra jendeak lo zirela segurtatzeko.

11- Azkenean, urteak jin urteak joan:

- ☐ Emaztea, alaba eta aita ahanzi zituen.
- ☒ Ikazkina Olentzero bilakatu zen.



12- Zuk zer diozu?

- ☐ Olentzeroren ipuinaren bertsio berri hori gustatu zait.
- ☐ Sobera tristea da, pena handia sentitu dut Goiara, Aitona eta Aita ikazkinarentzat.
- ☐ Biziki tristea da baina ongi ulertzen da zergatik ikazkina Olentzero bihurtu zen.
- ☐ Hala ere ongi bukatzen da, istorio honi esker ikazkina gure Olentzero bihurtu baita.

.....

.....

13- Zure lagunei aholka (kontseila) zeniezaieke?

- ☐ Bai
- ☐ Ez

14- Maitatu duzun zati labur bat hauta ezazu eta kopia.

.....

.....

.....

15- Ipuin honen ilustrazio bat egin edo kopia ezazu.

